



# LIBURVAK

AITA LUIS VILLASANTE, *Axular-en Hiztegia*. (Euskara - Español - Français; Español - Euskara; Français - Euskara). Jakin. Arantzazu - Oinati, 1973.

Liburu hau zer den jabetzeko beharrezkoa zaigu Axular eta bere obraren berri jakitea, baina era berean zehatzago ezagutzeko lagungarri izango zaigu liburu hau.

Karl Bouda, Erlangen-go Unibersitateko irakaslearen iritziz, 1949an euskal kulturari buruz Unibersitate hartan argitaratu zuen liburuxka batean zionez, literaturari buruz aritzean, gehiegizkoa iduritzen omen zitzaion euskaldunon literatura erlijio hutsezkoa dala esateak. Elizak, behar bada, berakin dituela hizkuntza zaintze eta gordetzearen merituak, baina hala ere, euskara idatzian, Axular-ena bezalako erlijio liburuak teologia hutsezko lanetatik oso urruti daudela.

Axular-ek, *Gero* liburuan, kristauak inguratzen dituzten bizio txar eta pekatuak aztertzen ditu, denboraz bide onera laguntzako asmoz, behar bezalako kristauera eramateko. Gaia, liburuaren barna, erudizioz betea, autore askoren eritziak jasoaz, kondairak, gertaerak eta abar, eta era berean idazkera txukun batean hizkuntza jantzi az maitasunez agertzen zaigu. Honek egin du Axular denbora guzietako euskal idazleen artean klasikoena izatea.

«Orixe»k 1927an «Euskal-Esnalea» aldizkarian zionez, Axular, Bidasoaz handik asko irakurria omen zen, eta Bidasoaz hemendik «orain beintzat irakurtzeko gogoia etorri zaie zenbaiti, ta maizago irakurtzen ezpada, liburu orien alerik arkitzen ez delako da, ta ez besterengatik. Damurik ez dugu ikusiko nai bezain laister *Gero*-ren edizioe berria! Axular bezalako idazle asko izan balitu euskerak, dagon baino landuagoa zegoen onezkero.»

Baina, gehiago oraindik, «Orixe» ber-berak iharraituko du esanaz: «Axular-en idaztanka bizia da, arraia, garbia, ta zainduna. Naiz bitxikeri edo axekarako, naiz funtsez eta gogor mintzatzeko gai dago beti.»

*Gero* liburuua 1643an argitaratu zen lehen aldiz. Geroztik zenbait argitalpen izan ditu. Azkeneko biak, 1954an Euskaltzaindiaren ardurapean argitaratua eta aspaldi ahortua, eta 1964an, L. Villasante berak erdal itzulpenez «Espirituales Españoles» sailean argitaratua, laster ahortzeko zorian dagoena.

Guztiok bat gatoz euskal literaturako egilerik bereziena dala aitortzen. Baina, batez ere, Axular, bere inguru zuen eskola baten maisu eta ordezkari dugu. Sarako eskolatzat ezagutzen dugu, Sarakin batean Ziburu eta Donibane-Lohizune ere hartzen zituelarik. XVII. mendearen lehen partean egosi zen eskola hori, gure literatura zaharreko unerik aberatsena dugu.

Axular eta bere inguruko izkribatzaileei buruz saiakera anitz egin da; baina batez ere, Axularri buruz, Aita Luis Villasante urte askotan ari zaigu. Arestian aipatu dugu *Gero*-ren erdal itzulpena, baina egilearen bizitzari buruzko lan eder bat ere badu: *Axular: Gizona, Mendea, Liburuua* izenez 1972an argitaratua. Hamazortzi urte dira Euskaltzaindiaren «Euskera» aldizkarian Axularren hiztegiaren lehen zatia argitaratu zuela, eta geroztik, A. Villasantek, eten gabe iharraitu dio lanari hiztegi osoa burutu arte. 1973an izan du argitaratzea zorioneko liburu honek: *Axular-en Hiztegia* izenez.

Liburuaren sarreran ematen ditu lana aurrera eramatearen xehetasunak eta lehen euskal hiztegien berri laburra ere bai. Liburuaren egitura nagusia Euskera-Español-Français du, bertan hitza eta bere inguruko esana duelarik, hitzaren esan-nahia zihurrago ulertarazteko. Ondorean, hitz soilez, beste bi eratako hiztegiak dakarzki: Español-Euskara eta Français-Euskara ditu, bi hizkuntza horietarik bilabidea errazteko.

Lehen ere eginak dire autore zaharretatik zenbait hiztegi, baina oraingo hau dugu, dudarik gabe, euskarazko Autoritate-Hiztegirik handiena eta osatuena. Bertan biltzen dituelarik Axular-en esera guztiak.

673 orrialde ditu liburuak 21 × 14 zentimetro neurrian. Beraz, ezta txantxetako lana A. Villasante jaunak gertatu diguna.

*Gero* zuzenki ezagutzeko hiztegi bikaina. Hizkuntzalariak, hiztegilariak, eta izkribatzaileak, gure hizkuntzaren harrobi handi bat izango dute beren esku liburu honi esker.

J. SAN MARTIN.

